

Danborrek Hiriburutzaren iritsiera iragarri dute

Banderaren Igoera berezi batek eman zien hasiera Donostia 2016ren inaugurazio-ekitaldiei, Donostiako Orfeoiaren eta Kresala Dantza Taldearen laguntzarekin.

DSS2016EUren lehen inaugurazio-jardunaldia Wroclawekin egindako zuzeneko konexio batekin biribildu du. Poloniako hiriko 4.000 umek bat egin dute haurren danborradarekin, danborra joaz.

Donostiarren egun handiena hasteko minutu bat baino falta ez zenean Konstituzio plazako argiak itzali ziren eta megafonia bidez gogorarazi zen Donostia Europako Kultur Hiriburutza estreinatzeaz zegoela. Hamabietan puntuan hiriko bandera eta Europakoa aldi berean igo ziren, San Sebastian Martxa mitikoaren lehen doinuak entzun orduko. Aurten nobedade garrantzitsu bat izan zuen ekitaldiak: danborrek eta barriek Donostiako Orfeoiaren eta Kresala Dantza Taldearen laguntza izan zuten.

Martxaren ostean, argi-zuziekin iritsi ziren danborjole batzuk, eta argi horren pean jo zuten plazan bildutako danbor guztiek Europako ereserkia bi minutu baino gehiagoz. Hiriburutzari guztiok elkarrekin kaixo esateko modu sinbolikoa izan zen. Horren ondoren, hiriko danborraden bederatzi ordezkari eszenatokira igo ziren eta danborren atzeko partea erakutsi zuten. Bata bestearen ondoan jarrita, honako hau irakur zitekeen bertan: "DSS2016EU".

Hiriburutza-urtearen hasiera sinboliko honekin, danborradak ohiko 24 orduko iraupeneko ibilibidea hasi zuen, eta bertan, hiru orduetik behin *Iriyarena* piezak aldi berean jo dituzte hala nahi izan duten hiriko konpainia guztiek.

Horrez gain, beste berritasunetako bat bezala, Igoera-ekitaldi berezi honetan hiriko danborraden zazpi gune nagusietako ordezkariak lekukoak banatu zitzaizkien. Horiek lekukoak zegokien tokietara eramane zituzten, eta bertan egongo dira harik eta Donostiaren urteko egun garrantzitsuenaren 24 orduak igarotzen diren arte.

Gauerdian Europako bandera jaitsiko da, hirikoarekin batera. Berriz ere, jardunaldia ixteko modu gisa oraingoan, Europako ereserkia joko dute plazan, San Sebastian Martxarekin batera.

Danbor-elkarrizketa Wroclawen eta Donostiaren artean

Txikienek ere izan dute euren protagonismo-momentua San Sebastian Eguneko eguerdian, aurtengoan Wroclaweko 4.000 umeen laguntzarekin. Haiek gurera ekarri ahal izateko

Donostiako udaletxearen terrazan bi pantaila erraldoi jarri dira eta, 12:00etan, bi danborradek, euskaldunak eta poloniarrek, batera jo dute San Sebastian Martxa.

Urte osoan zehar Europako Kultur Hiriburutza titulua partekatuko duten bi hirien arteko senidetasun-harremanaren hasiera irudikatu du une zirraragarri honek.

Biharko agenda

[Hemen](#) ikus daiteke biharko jarduera-egitarau osoa.

Eguneko argazkiak

[Hemen](#) ikus daitezke.

Bihar, urtarrilak 21, komunikabideei zuzendutako deialdiak eta komunikazioak

PRENTSAURREKOA

Elkarbizitzaren zubia - Tabakalerako prisma - 11:00

Donostia 2016ren inaugurazio-ekitaldiaren aurkezpena.

Bertan izango dira:

- Xabier Paya, Donostia 2016ren kultur programaren zuzendaria.
- Enara Garcia, Donostia 2016ren partaidetza arduraduna.
- Hansel Cereza, artista eta Donostia 2016ren inaugurazio-ekitaldiaren sortzailea.

Prentsaurrekoaren ostean zubira bisita egingo da Hansel Cerezaren eta bere taldearen eskutik ikuskizunaren xehetasunak ezagutzeko.

PRENTSAURREKOA

FITUR, Donostia 2016ren programazioaren aurkezpena Madrilen - 9C06 Standa, Euskadi - 16:30

Bertan izango dira:

- Eneko Goia, Donostiako alkatea.
- Pablo Berástegui, Donostia 2016ren zuzendari orokorra.

AURKEZPENA:

Ahotsak / Voces erakusketa - Fundación Real Sociedad - Anoeta - 18:00

Bertan izango dira:

- Jokin Aperribay, Realaren presidentea.

- Xabier Paya, Donostia 2016ren kultur programaren zuzendaria.

PRENTSA-OHARRA: BIGARREN EGUNAREN LABURPENA

Ordua: 19:00

Edukiak:

- Inaugurazio-ekitaldiari buruzko xehetasunak: elkarbizitzarako zubia.
- Donostia 2016 Fiturren.
- Ahotsak / Voces erakusketaren irekiera.
- Europar elkarrizketak: Pilsen eta Mons 2015eko Europako kultur hiriburuen zuzendari orokorrak.
- Argazki-galeria.
- Urtarrilaren 22ko komunikazio-jarduera nagusien aurrerapena.

Los tambores anuncian la llegada de la Capitalidad

Una Izada especial que contó con el acompañamiento del Orfeón donostiarra y de Kresala Dantza Taldea marcó el inicio festivo de los actos inaugurales de San Sebastián 2016.

Ha completado la primera jornada inaugural de DSS2016EU una conexión en directo con Wroclaw (Polonia), donde 4.000 niñas y niños se han sumado a la fiesta tocando el tambor.

Un minuto antes del inicio del gran día de los donostiarras, a punto de llegar la medianoche, se apagaron las luces de la plaza de la Constitución para recordar por megafonía que San Sebastián estaba a punto de estrenar su año de Capitalidad Europea de la Cultura. A las doce en punto, se izaron la bandera de la ciudad y la bandera europea a la vez que sonaban los primeros compases de la mítica *Marcha de San Sebastián*, aunque con una importante novedad para este año tan especial para San Sebastián: los tambores y barriles contaron con el acompañamiento del Orfeón donostiarra y del grupo de danza Kresala.

A la *Marcha* le sucedió la llegada de unas antorchas que acompañaron a la interpretación conjunta del himno europeo, que resonó en toda la plaza durante más de dos minutos, a modo de bienvenida coral al año de la Capitalidad. Acto seguido, subieron al escenario

nueve representantes de las tamborras de la ciudad y mostraron los reversos de sus tambores, en cuyo conjunto se pudo leer la inscripción "DSS2016EU".

Tras este inicio simbólico del año de Capitalidad, la tamborrada inició su habitual recorrido de 24 horas de duración, en el que todas las compañías que lo han deseado han interpretado al unísono la pieza *Iriyarena* cada tres horas.

Además, como otra de las novedades, en este acto de Izada especial se entregaron testigos a las y los representantes de las siete zonas en las que está dividida la tamborrada. Estos delegados han trasladaron dichos testigos a su correspondiente zona y permanecen allí hasta que terminen las 24 horas del día más intenso para San Sebastián.

La bandera europea se arriará hoy a medianoche junto con la de la ciudad. Una vez más, a modo de cierre de la jornada, el Himno europeo acompañará a la *Marcha de San Sebastián*.

Diálogo de tambores entre Wrocław y San Sebastián

Las y los más pequeños también han tenido su gran momento al mediodía del Día de San Sebastián, acompañados de más de 4.000 niñas y niños en directo desde Wrocław. Para la conexión se han instalado dos pantallas gigantes en la terraza del Ayuntamiento y a las 12:00 ambas tamborras, la vasca y la polaca, han interpretado juntas la Marcha de San Sebastián.

Este momento ha representado el comienzo de una unión de fraternidad entre las dos ciudades que a lo largo de todo el año compartirán el título de Capital Europea de la Cultura.

Agenda de mañana

El programa de actividades de mañana, 21 de enero, se puede ver [aquí](#)

Fotos del día

Se pueden ver [aquí](#)

Convocatorias y comunicaciones para medios de comunicación para mañana, 21 de enero

RUEDA DE PRENSA:

Puente de la Convivencia - Prisma de Tabakalera - 11:00

Presentación del acto inaugural de San Sebastián 2016

Asistirán:

- Xabier Paya, director del programa cultural de Donostia 2016
- Enara García, responsable de participación de Donostia 2016
- Hansel Cereza, artista y creador del acto inaugural de Donostia 2016

Tras la rueda de prensa habrá una visita al puente para conocer los detalles del evento, de la mano de Hansel Cereza y su equipo.

RUEDA DE PRENSA:

FITUR, PRESENTACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DE SAN SEBASTIÁN 2016 – MADRID – STAND EUSKADI 9C06– 16:30

Asistirán:

- Eneko Goia, alcalde de San Sebastián
- Pablo Berástegui, director general de San Sebastián 2016

PRESENTACIÓN:

Exposición Ahotsak / Voces - Fundación Real Sociedad - Anoeta - 18:00

Asistirán:

- Jokin Aperribay, presidente de la Real Sociedad
- Xabier Paya, director del programa cultural de Donostia 2016

NOTA DE PRENSA: RESUMEN SEGUNDO DÍA

Hora: 19:00

Contenidos:

- Se presentan detalles del acto inaugural: puente para la convivencia.
- San Sebastián en Fitur.
- Presentación expo Real Sociedad.
- Diálogos Europeos: directores generales de las capitales europeas de la cultura 2015, Pilsen y Mons.
- Galería de fotos.
- Avance actividades comunicativas principales del 22 de enero.